

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

TOKIKO GOBERNU BATZARRARI LAGUNTZEKO ORGANOA

Alkatearen 13. dekretua, normaltasun berrira igarotzeko premiazko prebentzio-neurriei buruzkoa 2

2020ko martxoaren 10etik, hainbat prebentzio-neurri ezartzen joan da Vitoria-Gasteizko Udala herritarren osasuna babesteko, Covid-19aren hedapena zela eta, Espainiako Gobernua-ren, Eusko Jaurlaritzaren eta Osakidetzaren ohartarazpenak aintzat hartuta, martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuaren bitartez deklaraturako alarma-egoeraren markoan. Alkatearen hainbat dekretutan jaso dira neurri horiek, zeinen bitartez premiazko prebentzio-neurriak hartu baitira, Covid-19 koronabirusaren eragina murrizteko.

Ekainaren 9an argitaratu zen 21/2020 Errege Lege Dekretua, zeinen bitartez Covid-19ak eragindako krisi sanitarioari aurre egiteko premiazko prebentzio-, euste- eta koordinazio-neurriak ezarri baitziren, alarma-egoera bukatu eta normaltasun berrira iristean aintzat hartu beharreko jarraibideak emateaz batera.

Era berean, alarma-egoera altxatu zen Euskal Autonomia Erkidegoan 2020ko ekainaren 19an, eta normaltasun berrirako jarraibideak ezarri, Lehendakariaren ekainaren 18ko 14/2020 Dekretua zela medio, zeinen bidez deklaratu baitzen deseskalada-planaren 3. fasea gainditu zela, indarrik gabe uzten zirela alarma-egoeraren barruan hartutako neurriak eta 2020ko ekainaren 19ko 00:00etan Euskal Autonomia Erkidegoa normaltasun berrian sartuko zela ezartzen.

Testuinguru horretan, gomendagarri da Udal honek gizarte-errealitate berri horretara egokituko diren zenbait neurri hartzea, Estatuko eta autonomia-erkidegoko xedapenekin bat etorritz. Horren adibide dira normaltasun berrirako trantsiziorako Alkatearen hamaikagarren eta hamabigarren dekretuak.

Normaltasun berrian sartzearekin, egoera sanitarioaren bilakaera onari esker, udal zerbitzu guztiek berriro ekin diote beren jarduerari eta aurrez aurreko arretari, apurka-apurka. Besteak beste, Gizarte Politiken, Adinekoen eta Haurren Sailaren mendeko hainbat zerbitzu jarri ziren abian berriro, eta haur-eskolak eta gizarte-etxeak, zeinen jarduerak Covid-19 koronabirusaren eragina murrizteko premiazko prebentzio-neurriei buruzko Alkatearen hainbat dekreturen bitartez utzi baitziren bertan behera. Protokolo zorrotzak jarraituz ari dira aktibatzen beti ere zerbitzu horiek, edukiera kontrolatzeko eta distantzia eta higiena mantentzeko behar diren neurriekin, egoera berriak agintzen duen bezala.

Era berean, 2020ko udako kanpaina abian jarri da Mendizorrotza eta Gamarrako instalazioetan, ezohikoa izango baita aurtan. Krisi sanitarioaren ondorio diren segurtasun-betebeharrek sarrera-sistema bat diseinatzera behartu dute, hitzorduarekin, aukera eman dezan instalazioen edukierak kontrolatzeko eta prebentzio-neurriak martxan jartzeko.

Azkenik, uste izan da behar diren baldintzak betetzen direla Lakua-Arriaga auzoko karabantzako parkinga berriro irekitzeko, Mugikortasunaren eta Espazio Publikoaren Saileko zinegotzi ordezkariaren ebazpenarekin bat etorritz —2020ko martxoaren 22ko eraginez dekretatu zen aldi baterako ixtea—.

Aurreko akordioetan adierazi bezala, egoeraren premia zela eta, dekretu honetan jasotzen diren neurrietako batzuk dagoeneko iragarri eta aplikatu dira, baina beharrezkotzat jotzen da Alkatetzaren erabaki betearazle batean jasotzea, Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 36. artikulua ildotik.

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 124. artikulua arabera, beste batzuen artean eginkizun hauek betetzea dagokio alkateari: b) Udalerriko politika, gobernu eta administrazioa zuzentzea; h) Kasu berezi eta oso presakoetan beharrezkoak eta egokiak diren neurriak hartzea, eta Udalbatzari berehala jakinaraztea, eta i) Udal-administrazioaren zerbitzura dauden langileen goi-zuzendaritza betetzea.

Xedatu dut

Lehen xedapena. Udal zerbitzuei atzera ekitea

1. Udal zerbitzu hauei ekingo zaie atzera, distantzia mantentzeko eta edukiera eta higiena kontrolatzeko behar diren neurriak hartzen direlarik eta orobat baliatzen direlarik erabiltzaileen nahiz udal langileen segurtasuna bermatzeko protokoloak:

- Haurtzaro eta Senitarte Zerbitzuaren zortzi zentro sozioedukatiiboak, 2020ko ekainaren 1ean.
- Adinekoak artatzen diren eguneko arreta-zerbitzuak (Tomas Zumarraga Dohatsua, Blas de Otero eta Santa Maria de Olarizu), 2020ko ekainaren 10ean.
- San Prudentzioko eguneko arreta-zentroa eta adinekoentzako zentro soziokulturaletako jantokiak, 2020ko ekainaren 15ean.
- Udalaren haur-eskolak —Haurtzaro (hirigune historikoan), Sansomendi, Zaramaga, Lourdes Lejarreta (Lakuan) eta Zabalzana— 2020ko ekainaren 24an.
- Kontsumoko arbitraje-prozeduretako entzunaldiak, 2020ko ekainaren 10ean.
- Gizarte-etxeetako jarduera eta zerbitzuak:
 - Elkartze-areto eta kafetegiak, 2020ko ekainaren 9an.
 - Liburutegiak. mailegurako, aldez aurreko hitzorduarekin, 2020ko ekainaren 10ean.
 - Kirolklub Udalaren kirol zerbitzua —Mendizorrotzean eta Gamarran ditu instalazioak—, ekainaren 15ean, hitzorduarekin.
 - Gizarte-etxeetako ariketa-gelak, ekainaren 29an.
 - Diziplina hauetarako kirol-instalazioak: badmintona, tenisa, mahai-tenisa eta padela; hitzorduarekin, 2020ko ekainaren 22tik aurrera erabiltzeko.
 - Igerileku estaliak, hitzorduarekin, eta egutegi honekin:
 - 2020ko uztaila: Aldabe, Hegoalde, Ibaiondo eta Mendizorrotza —gainerakoak itxita egongo dira—.
 - 2020ko abuztua: Ibaiondo, Iparralde (2. hamabostaldia), Mendizorrotza (1. hamabostaldia).
 - 2020ko iraila: Igerileku estali guztiak irailaren 1ean irekiko dira, salbu eta Ibaiondo eta Mendizorrotzekoak, zein irailaren 21ean eta 13an irekiko baitira, hurrenez hurren.

2. Indarrik gabe uzten da gainerako udal jarduera eta zerbitzuak bertan behera uztea, berriro aktibatuko baitira, apurka-apurka, dagozkien jarduera-protokoloak onetsi ondoren, kontuan izanik une bakoitzeko egoera sanitarioa eta distantzia mantentzeko eta edukiera eta higiena kontrolatzeko neurriak, ekainaren 9ko 21/2020 Errege Lege Dekretuan —Covid-19ak eragindako krisi sanitarioari aurre egiteko premiazko prebentzio-, euste- eta koordinazio-neurriak— eta Lehendakariaren ekainaren 18ko 14/2020 Dekretuan —zeinen bidez deklaratu baitzen deseskalada-planaren 3. fasea gainditu zela, indarrik gabe uzten zirela alarma-egoeraren barruan hartutako neurriak eta 2020ko ekainaren 19ko 00:00etan Euskal Autonomia Erkidegoa normaltasun berrian sartuko zela ezartzen— ezarritako xedapenen ildotik.

Bigarren xedapena. Mendizorrotza eta Gamarrako igerilekuetako udako kanpaina

1. Udalaren kanpoko igerilekuak data hauetan irekitzea erabaki da:

- Mendizorrotzeko kirol-esparrua: uztailaren 1etik irailaren 20ra.
- Gamarrako parkea: uztailaren 1etik irailaren 6ra.

2. Sartzeko, erreserba egin beharko da alde aurretik, Udalaren webgunean edo 010 telefonon, eta lehen fasean kirol-instalazioetako abonatuak bakarrik onartuko dira.

3. Hasieran, 1.500 lagunekoa izango da kirol-esparru bakoitzeko gehieneko edukiera, eta, segurtasun-baldintzek ahalbidetzen badute, 3.000ra handituko da gero Mendizorrotzekoa, eta 3.400era Gamarrakoa.

4. Prebentzio-neurriak eta bestelako arauak, hots, instalazioetara sartu eta horiek erabiltzeko, bainatzeko nahiz berdeguneak erabiltzeko arauak Udalaren webgunean dituzte eskuragarri erabiltzaileek, kontsultatu ahal izateko.

Hirugarren xedapena. Karabanentzako parkinga berriro irekitzea

1. Vitoria-Gasteizko Lakua-Arriaga auzoko Forondako atearen eta Luis Olariaga kaleen ondoko karabanentzako parkinga berriro irekitzea agintzen da, 2020ko ekainaren 12ko eragin-datarekin.

Xedapen indargabetzailea

1. Baliogabetuta geratuko dira Covid-19 koronabirusaren eragina murrizteko premiazko prebentzio-neurriak hartzeko eta normaltasun berrirako trantsiziorako Alkatearen dekretuetan jasotako neurriak, hemen bildutakoen kontrako diren edo horiekin kontraesanean daudelarik.

2. Bereziki —ez baita erabateko zehaztapena—, eraginik gabe geratuko dira xedapen hauek:

– Alkatearen 1. dekretuaren —2020ko martxoaren 10ekoa, premiazko prebentzio-neurriak hartzea, Covid-19 koronabirusaren eragina murrizteko— lehen xedapena.

– Alkatearen 2. dekretuaren —2020ko martxoaren 13koa, premiazko prebentzio-neurriak hartzea, Covid-19 koronabirusaren eragina murrizteko— lehen xedapena, laugarrenaren 1. eta 2. puntuak eta bosgarrenaren 3. eta 4. puntuak.

– Alkatearen 4. dekretuaren —2020ko martxoaren 18koa, premiazko prebentzio-neurriak hartzea, Covid-19 koronabirusaren eragina murrizteko— hirugarren 1 xedapena.

– Alkatearen 5. dekretuaren —2020ko martxoaren 25ekoa, premiazko prebentzio-neurriak hartzea, Covid-19 koronabirusaren eragina murrizteko— hirugarren xedapena eta laugarrenaren 1. puntua.

– Alkatearen 8. dekretuaren —2020ko apirilaren 14koa, premiazko prebentzio-neurriak hartzea, Covid-19 koronabirusaren eragina murrizteko— hamargarren eta hamabigarren xedapenak.

Azken xedapena. Errekurtsoen erregimena

1. Ebazpen honen kontra, administrazio-bidea agortzen baitu, zuzenean aurkez daiteke administrazioarekiko auzi-errekurtsoa Gasteizko administrazioarekiko auzietarako epaitegietan, bi hilabeteko epean, jakinarazi edo argitaratzen den egunaren biharamunetik.

Nolanahi ere, alde aurretik aukerako berraztertze errekurtsoa aurkez daiteke erabakia hartu duen organoaren aurrean, hilabeteko epean, jakinarazi edo argitaratzen den egunaren biharamunetik —kasu horretan, ezingo da administrazioarekiko auzi-errekurtsorik aurkeztu hori berariaz edo ustez ebatzi arte—. Berariazko ebazpena ematen bada, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkezteko epea bi hilabetekoa izango da, egintza jakinarazi edo argitaratzen den egunaren biharamunetik; bestela, berriz, edozein unetan aurkeztu ahal izango da, araudi espezifikoaren arabera administrazioaren isiltasunaren ondorioak sortzen diren egunaren biharamunetik.

Vitoria-Gasteizen, 2020ko ekainaren 24an

Alkatea

GORKA URTARAN AGIRRE